

11

artikulua

ingurugiroa

LAUDIO

HIRITARTZEAREN BIZIBERRITZA BULTZATZA

XXII



Tokiko Agenda 21
Garapen Jasangarriaren Programa Laudion



Lurzorua baliabide eskasa eta ez berriztagarria da, beraz, eskainiko dizkiogun erabilera ezberdinen artean orekari eusten saiatu beharra dago : hiritarra-industrial, nekazaritzakoa eta naturala.

Gure udalerrian dauden berde gunean, aparkamenduen zenbateakoa, auzoek herriko erdiko aldearekin duten lotura, bihar-etziko etxebizitza mota eta eredua eta beste hainbat gai bizimoduaren kalitatearekin harreman zuzena dutenak hiriaren antolamenduan, hirigintzan, tratatzen dira.

Laudio udalerrian eraikita dagoena ahal dugunik eta gehien norabiderik gabeko hazkundera izatea eragotzi behar da;beraz, dauden eraikinen zaharberritzea eta degradatutako zonen berreskurapena funtsezkoak dira kontuan izanik eduki duten industria aroko historia.



Jasangarritasunaren helburu orokorra:

- Hiriko sistemek sortzen duten ingurugiro inpaktua moteltzea.
- Hiriko bizitza kalitatea hobetzea.
- Degradatutako zonak berreskuratzea eta biziberritzea.

Laudioren Jasangarritasunerako ekintza plana



Laudion zer egin da?

Laudio udalerrria 1940 hasieran nekazal gunea baino ez zen ia 5000 bizilagun zituela. Bere ekonomia eta gizartea oinarri izanik, herriaren fisonomia eta bere biztanleen bizimodua tankerako landa egituratan normalean izaten direnetakoa zen.

30 urte igaro ostean, baserriarren giroko Laudio hura desagertu zen. 60 eta 70 urteetako itzelezko garapena, industria izaerako kolonizazioaren eraikuntzaren eskemari erantzuna eman zion, alegia: aurrenik industria berrirako lekua bilatu eta gero eraikuntzak -etxebizitzak altxatzen ziren - pertsonak bizitzeko, non eta hurbilean lekurik libre zegoenean

Guzti horren ondorioa gune desintegratua izan zen,, non empresa handiek etxebizitzekin erabilera eta espazioa partekatzen zuten, ia bereizketa fisiko barik.

Area urbanoko bizitzaren bihotza suntsitu eta hautsi zuen 1983 urteko uriolak izan zirela eta gertatu zen inflexio puntua. Urte horretik hasita, berreraikuntza fisikoko eta berraktibazio ekonomikoko programa batek erraztu zuen gertatutako kalterik nagusienak, eta kasu askotan, alde aurretik zegoen egoera hobetzea lortu zen. Uholde horiek eragindako zauririk nagusienak itxear geundenean, Laudioko herriak krisi handiari aurre egin behar izan zion, metalaren azpisektoreko errekonbertsioarekin: populazio barruan hondamendi arruina industrialak eta horien eraginak Laudioko gizartean eta ekonomian, langabeziaren hazkunde handiarekin elkartuta izan ziren zauriak.

Era horretan, nahiz eta hiri biziberritzearen arloan hobekuntza nabariak izan diren arren, Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren (HAPO) aplikazioari esker, oraindik orain iraganeko arazoren bat edo beste tarraska darabilgu.

Herriko erdigunea afektatuta dago trenbide eta burdinbidearen pasaguneaz, herrigunearekin auzo batzuek duten loturetan akatsak daude, etxebizitza gehiago behar dira, batez ere babes ofizialekoak, eta baita ere berde gune gehiago.

Laudion zer falta da egiteko?

Azaldu diren akatsen arteko batzuk konpontzeko bidean daude dagoeneko, nahiz eta epeak ezberdinak izan batzuetarako zein besteetarako. Era horretan, Laudioen Jasangarritasunerako Ekintza Planak planteatzen dituen ekintzak udalerrriaren hiritar biziberrikuntzarako, honako hauek dira:

- **Hiritartzeko, hirian sartzeko programa: erdigunea-kanpo aldearen arteko lotura.**

Laudioko Udalak aurreikusita dauka sarrera /sarbide mekanikoa Larraño auzunera eraikitzea, Lateorro auzoan bide ardatz zeharkakoa egitea eta biribilgune oso zabala Zumalakarregi Etorbideko ipar muturra eta Areta auzoaren artean egitea, hirian sartzeko, hiritartzeko beste neurri batzuen artean.

- **Udalerriko azpiegitura eta bizitegirako erdigunea hobetzeko programa.**

Atal honetan, Laudioko Udalak planteatzen du trenbidea lurperatzea, erdigunearekin lotzeko autobiarene adarraren azpitik hasita eta Guardian enpresako fabrikazio linea nagusiko muturreraino, udalerriko erdi alde osoa oinezkoentzat bihurtzea, zati batean eginda dagoena. Bitorikako harrobi zaharra berreskuratzea eta Nerbioi Ibaiondoko luzeran Parke Lineala handiaren garapena, horrek aisialdirako zona oso zabal eta handia eskainiko lukeelarik.

- **Babes ofizialeko etxebizitzaren eraikuntza programa.**

Nahiz eta Babes Ofizialeko Etxebizitzaren (BOE) eta antzekoen aurreikuspena HAPO-n 300koa izan, Laudioko Udala aztertzen ari da eskuartearen dituen aukera guztiak babes ofizialeko etxebizitzaren eskaintza hori handiagoa izateko, horien artean egongo zirelarik alokairuzko etxebizitzak ere, populazioaren sektore gaztearentzako eta erosteko ahalmen gutxiago duenarentzako.

Zerbait egiteke geratzen dela uzte baduzu, parte artu **Laudio denon arteko konpromisu bat.**

Hau da 13 artikuludun bildumaren hamabigarren alea. Aleren bat ez badaukazu Hirigintza eta Ingurugiro arloan eskatu. Udaletxeak aleak biltzeko karpeta eskeintzen ditu.